



Oinarriak

- **Aurkezteko epea:** Azaroaren 2tik - Azaroaren 16ra.
- **Aurkezteko lekua:** Urkomeko bulegoan.
- **Aurkezteko dokumentazioa:**
Bi zatitan banatuta ideia edo egitasmo bakoitzarentzako. Datu pertsonalak alde batetik eta proiektu edo egitasmoaren informazioa bestetik.
- **Guztira 5 atal. Atal bakoitzean...**


2.000 €

- **SARI IREKIA** edo bozka bidezkoak, eskualdeko produktuez osaturiko sorta bat izango du ordainsari.
- **Eremua:** Urola Kostan garatzen ari den edo garatuko den proiektua izatea.
- **Parte-hartzaileak:** Erakunde, elkarte, partikularrak eta sektoreko enpresak
- **Proiektuak:** 2015-2016 urteetan exekutatu edo amaituko diren proiektuak izatea.



LAUGARRENGO
URKOME
SARIAK

LAUGARRENGO URKOME SARIAK



Sariak ondorengo 6 ataletan emango dira:

- Nekazaritza jardueraren sustapena.
- Landa eremuko jarduera ekonomikoaren sustapena.
- Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatu.
- Landa eremuko balio-aniztasuna agerian jarri.
- Iraurgi berritzenek eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean emango dutena.
- Sari irekia **BOZKA** bidez egingo dena.

Atal hauek Urkomek 2015-2020 Landa Garapen Programan barneratuta dauden lau garapen ardatzetan oinarrituta daude. Beste sari bat, eskualdeko elkarteekin egindako lankidetzaren ondorioz emango da (Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak), eta azkenik partaidetza areagotzeko ahaleginetan, BOZKA bidez emango den Saria. Sariak emateko epaimahaia ondorengo erakundeek osatuko dute: HAZI Fundazioko, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Iraurgi Berritzeneko, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Urkomeko Zuzendaritza Batzordeko kideek.

Balorazio irizpideak

- 1 Ideia berritzailea izatea produktu edo zerbitzu berria sortuz.
- 2 Berrikuntzak egun dauden produktu edo zerbitzuetan.
- 3 Teknologia berrien aplikazioak aurrakusten dituzten proiektu edo ideiak.
- 4 Bideragarritasun ekonomikoa duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 5 Enplegua sustatzen duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 6 Berdintasuna aurreikusten duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 7 Gazteen ideia edo proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 8 Kooperazio proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 9 2015-2016 urteetan exekuzioa aurrakusten duten proiektuak eta hori bermatzen dutenak gehiago baloratuko dira.



Epaimahaiaren erantzuna

- Epaimahaiak sariak emateko gaitasun askea du eta adostasunez hartuko ditu erabakiak erizpideen arabera
- Irabazleei telefonoz deituko zaie eta www.orkome.eus web orrialdean jarriko dira.
- Epaimahaiak atal bakoitzerako dagoen saria nola banatu erabakitzeko eskumena izango du, bai eta eman gabe uztekoa ere, horretarako proiektu egokirik ez dagoela iritziz gero.

Parte-hartzaileen betebeharrak

- Sari lehiaketaren oinarriak onartzea.
- Ideia edo proiektua behar den bezala aurkeztea.
- Datuen fidagarritasuna bermatzea.

Antolakuntzaren betebeharrak

- Partaideek aurkeztutako proiektu edo ideiak isilik/babesturik mantentzea.